

# 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO PLANGINTZAREN EBALUAZIOA ETA 2023-2027KO NORABIDEA ZEHAZTEKO PROZESUA

## SINTESI-TXOSTENA

2023ko maiatza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro




# AURKIBIDEA

<b>0 Sarrera</b> .....	<b>3</b>
<b>1 Plangintzaren betetze-maila</b> .....	<b>4</b>
<b>2 Plangintzaren azterketa</b> .....	<b>7</b>
2.1. Palankak.....	8
2.2. Zailtasunak.....	9
2.3. Landu eta indartu beharrekoa. Begirada non jarri.....	10
<b>3 Norabidea</b> .....	<b>18</b>
3.1. Eremu estrategikoak.....	18
3.2. Ildo estrategikoen mapa.....	19
3.3. Helburu estrategikoak.....	20
3.4. Baldintzak eta konpromisoak.....	23

## 0 Sarrera

Legegintzaldia bukatzeaz dela, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak legegintzaldiko plangintzaren ebaluazio-prozesua jarri du martxan, egindako lanaren urratsak eta emaitzak ebaluatzeaz gain, etorkizunera ere begiratu eta 2023-2027 legegintzaldi berrirako oinarriak ezartzeko xedearekin. Hortaz, ebaluaziotik etorkizunera begiratzeko ariketa izan da egindakoa.

Ebaluazio-prozesuaren urratsak hauek dira:



Barnetik kanporako ibilbidea duen prozesua da, barrurako begiradatik hasi eta kanpokoarekin uztartu dena eta pausoz pauso elkar elikatu dena.

Barne-ebaluazio eta ebaluazio partekatuaren fasean garatutako saio desberdinetan atera diren ideia eta edukiak aztertu ditugu eta horien sintesia jasotzen du txosten honek. Halaber, ebaluaziotik etorkizunerako begiradarekin (kontuan hartuta atera diren edukiak) eta norabidea zehazteko azken faseari ekiteko, etorkizuneko lan-ildo eta helburuen proposamena ere luzatzen dugu, zeina Bateratze-saioan landuko dugun.

Horren ondoren, ebaluazio-prozesuaren behin betiko txostena erredaktatuko da.

# 1 Plangintzaren betetze-maila

2019-2023 legegintzaldiko plangintzaren betetze-maila honakoa izan da:

ILDOAK	HELBURUAK	ESTRATEGIA	HARTZAILEAK	GARAPEN-MAILA
1. Markoa (diskurtsoa, errelatoa, ...) definitzea	1.1. Adostasun eta konpromiso politikoa bilatzeko oinarriak zehaztu	Mintegi eta jardunaldien bidez	Ordezkarri politikoak	EGIN GABE
		Think That espazioaren bidez		EGIN GABE
		Alderdi politikoekin Batzar Nagusian gaia landuz *Udalekin eredu hartu eta lantaldea sortu lanketa egiteko		EGIN GABE
		Exekutiboaren dinamika indartuz		EGIN GABE
	1.2. Partaidetzaren dimentsio desberdinen definizioa adostu	Genero lantaldearen bidez: partaidetza eta generoaren lanketa egin	Ordezkarri politikoak eta teknikariak	ALTUA
		Mintegiaren bidez: maila anitzeko gobernantza unitate didaktikoaren aurkezpena eta eztabaida		ALTUA
Mintegiaren bidez: ausazko partaidetzaren gida		ALTUA		

ILDOAK	HELBURUAK	ESTRATEGIA	HARTZAILEAK	GARAPEN-MAILA
2. Etengabeko formazioa eskaintzea	2.1. "Fazilitazioa": prozesuak bideratzeko oinarriko jakintzak landu	Trebakuntza eskaini hartzaileen beharrak eta Aldundiaren aukerak kontuan hartuta	Teknikariak	ALTUA
		Trebakuntza eskaini hartzaileen beharreak eta Aldundiaren aukerak kontuan hartuta		ALTUA
	2.3. Gipuzkoako herritartasun eskola definitu modu kolaboratiboan.	Aldundiak markoa eta prozesua definituz	Ordezkarri politikoak eta teknikariak	ALTUA
		Lantaldea sortuz: Aldundiak landutakoaren markoaren baitan prozesua elkarrekin diseinatu eta abiatzeko		ALTUA

ILDOAK	HELBURUAK	ESTRATEGIA	HARTZAILEAK	GARAPEN-MAILA
3. Administrazioaren lantzen dinamikak aztertu eta baldintza egokiak sortzea	3.1. Partaidetzako teknikarien rola definitu eta balioan jarri	Lantaldearen bidez: gaia landuko duen lantaldea sortu	Teknikariak	EGIN GABE
		Gaztematikarekin elkarlanerako esparrua aztertu eta diseinaturata		ERTAINA
	3.2. Administrazioaren funtzionamendua aztertu: zeharlerrotasuna, aliantzak,...	Udalekin ezagutu eta elkarlanerako bideak aztertu	Administrazioa	EGIN GABE
		Ekintza komunitarioaren lanketatik eratorritako harremanetatik beste foro batzuetan parte hartzea: inmigrazio foroa, etab.		ERTAINA

ILDOAK	HELBURUAK	ESTRATEGIA	HARTZAILEAK	GARAPEN-MAILA
4. Izaera komunitarioa eta herritartasuna lantzea	4.1. Herriko eragileak eta Udalak elkarrekin arituko diren eremuak sortu.	Lantaldearen bidez: herri txikiak: herri mailako prozesuak diseinatu, akonpainamendua eskaini...	Teknikariak	EGIN GABE
		Mintegiaren bidez: GIZARTELAB: <a href="http://www.euskotikaskuntza.eus/eu/proiektuak/gizartelab/pr-49/">http://www.euskotikaskuntza.eus/eu/proiektuak/gizartelab/pr-49/</a>		ERTAINA
	4.2. Herritarrenganako irisgarritasuna lortzeko gakoak identifikatu, desberdinen arteko indarrak metatu.	Jardunaldiaren bidez: EHUko Udako Ikastaroetako jardunaldia EHUko Parte Hartuzekin elkarlanean antolatuta		ALTUA

ILDOAK	HELBURUAK	ESTRATEGIA	HARTZAILEAK	GARAPEN-MAILA
5. Komunikazioa eta transferentzia lantzea, jakintza partekatua.	5.1. Erakunde ezberdinen arteko elkarlanerako kultura indartu	Erakunde arteko harremanak landuz, Espazioa eta bertan egiten dena ezagutzera emanaz: parte hartzen ez duten herri ertain eta handietara joan	Teknikariak eta ordezkari politikoak	ERTAINA
		Bilgune Teknikoa eta Plenaria indartuz eta sustatuz		EGIN GABE
	5.2. Praktikak partekatze espazioak eskaini: on-line foroa, presentzialak, ...	Praktikak partekatuz elikatzen den lantalde bat sortuz: aurrekontuen lantaldea		ALTUA
		Geolokalizazio-mapa Webgunean: partaidetza prozesuak jaso eta konpartitzeko		ERTAINA
		5.3. Barne eta kanpo komunikazioa indartu		Euskarriak eta plataforma elikatuz: buletina, elkarrizketa, iritzi-sortzailak, Partekatu...
	Webgunea berrantolatuz eta martxan jarrita	ERTAINA		

**Betetze-maila altua** duten ildoak, helburuak eta estrategiak:

<b>2. ildoak:</b> <b>Etengabeko formazioa eskaintzea</b>	Ildo honetako estrategia guztien betetze-maila altua izan da, betetze-maila altuena izan duen ildo estrategikoa izan da formazioarena
<b>1. ildoak:</b> <b>Markoa definitzea</b>	Partaidetzaren dimentsio desberdinen definizioak adostearen helburua eta bere baitako estrategia guztiak bete dira. Eta baita, ekintza komunitarioaren markoaren lanketa.
<b>4. ildoak:</b> <b>Izaera komunitarioa eta herritartasuna lantzea</b>	• Herritarrengana iristeko gakoak eta desberdinen arteko indarrak metatzeko helburuari erantzun zaio antolatutako hainbat jardunaldien bidez, eta baita ekintza komunitarioaren lanketarekin ere.
<b>5. ildoak:</b> <b>Komunikazioa eta transferentzia lantzea</b>	Estrategia batean da betetze-maila altua, aurrekontuen lantaldeari erreferentzia egiten diona

**Betetze-maila ertaina** duten ildoak, helburuak eta estrategiak:

<p><b>3. ildoak:</b>  <b>Administrazioaren lan-dinamikak aztertzea eta lan-baldintza egokiak sortzea</b></p>	<p>Administrazioaren funtzionamendua aztertzearen helburuaren baitan, bi estrategien betetze-maila ertaina da: batetik, Gaztematikarekin hasi da elkarlana baina oraindik harremana egonkortzeko lanean jarraitu beharra azpimarratzen da; bestetik, ekintza komunitarioan lanetatik eratorritako harremanetatik, harreman-sare berriak eraikitzeko ere oraindik urratsak eman behar direla baloratzen da.</p>
<p><b>4. ildoak:</b>  <b>Izaera komunitarioa eta herritartasuna lantzea</b></p>	<p>Herriko eragileak eta Udalak elkarrekin aritzeko espazioak sortzearen helburuari mintegien bitartez erantzutearen estrategiaren betetze-maila ertaina da; izan ere GizarteLab mintegia egin zen baina baloratzen da ez zela helburua guztiz bete, ondoren ez zelako egitasmora jende gehiago hurbiltzea lortu.</p>
<p><b>5. ildoak:</b>  <b>Komunikazioa eta transferentzia lantzea</b></p>	<p>Ildo estrategiko honetan helburu eta estrategia gehien betetze-maila ertaina da. Espazioa eta bertan egiten dena ezagutzera emateko harremanak landu dira udal batzuekin eta bide honetan jarraitzearen garrantzia azpimarratu da. Geolokalizazio-mapa martxan da eta publiko egiten denean beteko da helburua. Barne eta kanpo komunikaziori dagokionez, euskarri eta webgunearen berrantolaketan urratsak eman dira eta horien emaitza laster izango da</p>

**Betetze-maila baxua, edo egin gabetzat hartzen diren ildoak, helburuak, estrategiak:**

<p><b>1. ildoak:</b>  <b>Markoa definitzea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adostasun eta konpromiso politikoa bilatzeko oinarriak zehaztearen helburua lortzeko planteatzen ziren estrategietan ez dela eragin baloratzen da.</li> </ul>
<p><b>3. ildoak:</b>  <b>Administrazioaren lan-dinamikak aztertzea eta lan-baldintza egokiak sortzea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Partaidetzako teknikarien rola definitu eta balioan jartzearen helburuari ez zaio eutsi eta Administrazioaren funtzionamendua ezagutzeko helburuaren baitan, Udalekin sarea ezagutu eta elkarlanerako bideak lantzeko strategiari ere ez zaio eutsi.</li> </ul>
<p><b>4. ildoak:</b>  <b>Izaera komunitarioa eta herritartasuna lantzea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko eragileak eta Udalak elkarrekin aritzeko espazioak sortzearen helburuari herri txikiei akonpainamendua emanez eta herri txikien lantaldeen beharrei hurbiletik erantzunez eman nahi zen baina helburu hori ez dela bete baloratu da.</li> </ul>
<p><b>5. ildoak:</b>  <b>Komunikazioa eta transferentzia lantzea</b></p>	<p>Erakunde ezberdinen arteko elkarlanerako kultura indartzearen helburuaren baitan, Bilgune Teknikoa eta Plenaria indartzeko estrategia ez da bete. Mantendu dira baina ez dira indartu, kopuruaren ikuspegitik.</p>

## 2 Plangintzaren azterketa


Plangintzaren betetze-maila baloratzeko orduan, lanerako bi galdera izan ditugu oinarrian:

- *Plangintzaren garapenean zein baldintza izan zaizkigu lagungarriak eta palankak?*
- *Eta zein zailtasun edo muga aurkitu ditugu?*



Eta ebaluazioaren irakurketa eta azterketa eginda, aurrera begira jarri gara eta 4/5 urteko ikusmirarekin zehaztutako arlo bakoitzean zer landu edo indartu beharko genukeen landu dugu:

- *Zer landu edo indartu behar dugu? Non jarri behar dugu begirada?*



Saio desberdinetan atera diren edukien sintesia eginda, honako ideia gakoak nabarmentzen dira:

## 2.1. Palankak

- **Bisioa eta anbizioa izatea, estrategia eta lehentasunak** zehaztea eta asmatzen jakitea. Momentu zailetan, aurrera egiten jakitea eta egoerara egokitzeko gaitasuna.
- Estrategiari dagokionez, **Ekintza Komunitarioaren lanketarekin** asmatu dela baloratzen da, emankorra izan dela eta egindako bideak jarraipena behar duela, markoaren garapenari begira.
- Ekintza komunitarioaren lanketak begirada zabaltzea eragin du eta **aliantza eta sare berriak** egiteko aukera. Honek bide berriak arakutzen laguntzen du, eraldaketa foku duten politika publikoen arteko elkarlanari begira (migrazioa, gazteria...)
- Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak gidatutako plangintza **Udaletako teknikarien egoera eta beharretara** egokitu da eta honek helburu partekatuak izatea ahalbidetu du. Elkar entzutea, Erakunde arteko Espazioa **ekarpenak egiteko/partekatzeko** gunea izatea eta **elkarrekin ikasi eta bidea egiteko** espazioa izateak lagundu du **sarea** eraikitzen, **herri desberdinen arteko ezagutza eta sinergiak** sustatzen. Horretarako, udal-teknikarien **inplikazioa eta konpromisoa** ezinbestekoa izan da; eta inplikazio hori izateko, teknikarien arteko **harremanak lantzea eta konfiantza-giroa** sortzea urrats bat izan da.
- Egiteko moduak **hausnarketa kolektiboa** izan du oinarrian, lanketa kolektiboaren balio erantsia uneoro presente izan da, eta gauza praktikoa eta xumeek argitasuna eman die prozesuari, adibide eta praktika zehatzek lagundu dute bidea hobeto ikusten eta ulertzen.
- Egiteko moduen artean, **akonpainamendua eta babesa** eskaintzeak lagundu die udal batzuei beraien asmoak gauzatzen.
- Abiatzen diren prozesu giltzarrietan (ekintza komunitarioaren lanketa, kasu) **ordezkaritza politikoaren oreka** mantentzea gakoa dela azpimarratu da. Adostasun politikoak modu honetara lantzeak, laguntzen du aurrera egiten eta ordezkari politikoei mezua helarazten, praxi mailan bidea egiten ari garela eta emankorra dela.
- Erakunde arteko **Espazioa instituzionalizatua egoteak** laguntzen du mesfidantzak uxatzen.
- **Formazio-beharrak jasotzea, baliabideak jarri eta eskaintzea** eta udaletan sustatzea. Arlo honetan Gipuzkoako Eskola Irekiak duen papera gakoa dela aipatu da. Formazioari dagokionean, online formatuak aukerak zabaldu ditu parte hartzeko, bereziki udal txikietan.
- **Geolokalizazio-mapak** elkarren berri gehiago izaten lagunduko digu.
- **Dirulaguntzak eta aplikazioa**: batez ere, udal-erri txiki eta ertainek dirulaguntzen balioa eta garrantzia aitortu dute, guztiz lagungarriak zaizkiela azpimarratuz. Horri esker, herrietan ari dira partaidetza sustatzen eta egituratzen.
- **Etengabeko informazioa**: buletinaren bidez iristen da informazioa eta, zuzenean parte hartzeko zailtasunak dituztenentzat, interesgarria da hari hori mantentzea eta elikatzea.



## 2.2. Zailtasunak:

- **Lidergo politiko partekatua:** Legegintzaldi honetan adostasun eta konpromiso politikoa lantzea helburu izan bada ere, zailtasunak izan dira gaia abordatzeko, izan ere, legegintzaldia bereziki zaila izan da zentzu horretan lanketa egiteko: pandemia, zuzendaritza aldaketa, aurreikusi gabeko erronka berriak eta sortu diren foro berriak, agendak, lan-kargak.... Hori dela eta, Exekutiboaren papera birpentsatu beharra azpimarratu da, bere lana indartu eta zeharkakotasun ikuspegitik hori indartzeko.
- Halaber, aipatzen da, **maila politikoan partaidetza-arauaren inguruko ezagutza eta prestakuntza falta** dagoela.
- Abiatzen diren prozesu giltzarrietan **ordezkaritza politikoaren oreka behin eta berriro bilatzen aritzeak** nekea eragiten du, gainditu beharreko zerbait izan beharko litzatekeela aipatu da. Oreka hori beste leku batean landu beharra azpimarratzen da.
- **Baliabide gabezia:** batik bat, herri ertain eta txikiek azpimarratzen dute ez dutela giza baliabiderik eta gabezia horrek, horrelako dinamiketan aktiboki parte hartzeko zailtasunak eragiten dizkietela.
- **Herri txiki eta ertainen beharrei erantzuteko zailtasunak:** Aurrekoari loturik, egiten den hausnarketa da herri txiki eta ertainen beharrei erantzuteko zailtasunak daudela eta eskaintza egokitu beharra dagoela Espazioan udalerrri hauen parte hartzea areagotzeko.
- **Komunikazio-estrategia** garatzeko zailtasunak: komunikazioa ez da lehentasuna izan eta foroari duen balioa ez zaiola eman ondorioztatu da.
- Metapartaidetza gehiegi eta **foku praktikoa falta:** Espazioan edo foro desberdinetan lantzen dena herrietan lur hartzeko zailtasunak, nola ekarri herrietara gai horiek? Bestalde, esperientzia praktikoa erreala lantzea falta.
- **Etxe barruko koordinazioa eta zeharlerrotasun falta:** Foru Aldunditik gai berarekin lotutako bilera-deialdi desberdinak egiten dira eta horrek udaletan nahasmendua sortzeaz gain, bilera askotan parte hartzea eskatzen zaie. Eskaera edo eskaintza sinplifikatu eta bateratzeko beharra, eta espazio eta programen arteko lotura antolatu beharra nabarmendu da. Konfluentzia beharra.
- **Teknikarien harreman-sarea:** aurrez aurreko bilerak, bilera telematikoenatik ordezkatuak izan dira kasu batzuetan eta horrek parte hartze kopuruak igo baditu ere, harremanak elikatzeko oztopo izan dira. Dinamika partehartzaileagoak sustatu, patxadaz gaien inguruan jarduteko denborak eta espazioak eskaini.
- **Dirulaguntzetan talde eskaerak:** taldean aurkezteko dirulaguntzak ze aukera ematen dituen ondo komunikatu beharra.
- **Langaiei dagokionez, proposamenak:** a) Foru Aldundiari dagozkion eskumeneko gaia herriz herri eta herritarrekin lantzeko espazioak bideratzea (kirola, garraioa, errepideak...); b) herriei begirako aholkularitza eta akonpainamenduari lehentasuna ematea; c) prestakuntzaren diagnosi bat egitea eta Gipuzkoako Eskola Irekiak horri erantzutea; d) partaidetza-teknikarien rolaren lanketa.

### 2.3. Landu eta indartu beharrekoa. Begirada non jarri.



#### Kultura politikoko eragitea, barrutik eta kanpotik:

Kanpoan eragiteko, lehenbizi, barrutik hasi beharra dagoela azpimarratzen da. Instituzioen artean kultura politikoa demokratikoa indartzeko beharra sumatzen, akordio eta konpromiso sakonak eskatzen dituen. Erakunde arteko Espazioak duen ibilbidea ikusita, Gipuzkoan nahikoa baldintza eta testuinguru badagoela baloratzen da instituzio eta alderdi politiko ezberdinen artean, partaidetzaren markoaren inguruan adostasunak eraikitzeko: zer da, nola ulertzen dugu eta zer berme behar dira herritarren partaidetza sustatzeko. Adostasun eta konpromiso politikoa bilatzeko oinarrien lanketa horren baitan, Exekutiboaren papera birpentsatu beharra dagoela ere azpimarratzen da.

Udaletan eta Aldundia barruan ere norabide berdineko pausoak ematea urrats bat gehiago izango litzatekeela aipatzen da. Izan ere, udaletan zein aldundian sailen arteko elkarlan eta zeharkakotasun falta azpimarratzen da, eta dinamika horiek gainditu beharra azpimarratu da. Horrelako prozesuetan, udaletan partaidetzaren eremua egituratua izateak laguntzen duela aipatu da, partaidetza zinegotzia eta dagokion batzordea izatea, alegia.

Gizarteari begira, udalerrietan, oro har, partaidetza eta herritartasunaren kultura sustatu beharra ikusten da. Horretarako, hezkuntza-eremuan eragitea proposatzen da, eta gure seme-alabak herritar kritiko izan daitezen eta aukera berdintasuna sustatzeko herritartasuna hezkuntza-eragileekin batera lantzea proposatzen da.

Horrez gain, nabarmendu da politika publikoak modu parte-hartzailean garatzen diren jakiteko begirada jarri behar dagoela ebaluazio-prozesuetan, hauen diseinu eta sistematizazioan, alegia.

### **Lidergo politikoa:**

Borondate politikotik konpromiso eta inplikazio politikorako jauzia ematea eskatzen da, eta udaletan elkarlan tekniko-politiko indartzeko baliabideak jartzea.

Ordezkaritza politikoen inplikazioa areagotzeko hainbat gako jaso dira:

- Legealdi hasieran ordezkari politiko berrien arteko saretzea ematea. Horretarako, trebakuntza eskaintzea, aholkularitza eta akonpainamendua eta dirulaguntzen berri ematea garrantzitsua da.
- Ordezkaritza politikoen beharrak jaso eta lantzeko aukerak planifikatzea.
- Partaidetzaren markoaren lanketa ordezkari politikoen eskura jartzea, eragiteko tresna gisa.

### **Partaidetza-teknikarien profila:**

Partaidetza-teknikarien aitortza beharrezkoa da, eta teknikarien profila definitzeak aitortza hori ematen lagunduko luke. Horretarako, aurretik eginda dagoen lanketa berreskuratu eta gaiari eustea proposatzen da, profila definitzerakoan kontuan hartuz ekintza komunitarioaren lanketak eman digun ikuspegi eta testuinguru berria.

### **Espazioaren dinamika, egitura eta antolaketa:**

Balioan jarri da Espazioak egun duen dinamika, eta garrantzia eman zaio harreman hurbilak zaintzeari, tratu pertsonalari, autoestima kolektiboa lantzeari, elkarrengandik ikasteari, dagoen motibazioa elikatzeari, pertsonen arteko sareak zaintzeari eta aurrez aurreko elkarteratzeak mantentzeari.

Harreman eta elkarlanari dagokionez, behin baino gehiagotan atera da teknikariek bizi duten bakardadea eta une jakinetan beraien zalantzak argitzeko faltan botatzen duten lantaldea edo espazioa. Plangintzan kontuan hartzekoa litzateke alderdi hau, teknikariek une jakinetan beraien intereseko gaiak jorratzeko espazioak sortzea izan daiteke bide bat, edo bidelagunak sortzea... Honekin lotuta, aipatu da interesgarria litzatekeela Bilgune Teknikoko partaideen perfilak mapeatzea, elkarri laguntza eman edo elkarrengandik ikasteko urrats bezala.

Aurrekoarekin lotuta, zenbait ideia azpimarratu dira partaidetza teknikari berri bat udal batean hasterakoan, jakin edo jaso beharrezkoaz eta Erakunde arteko Espazioa ongi etorria ematen dion harrera-protokoloa izatea proposatu da, honakoak jaso ditzakeenak:

- Espazioa zer den azaldu, dokumentazio interesgarriaren bilduma, materiala, Partekatua Gunea...,
- Aurrez aurre, partaidetzaren marko juridikoaren saioa.
- Dagokion erreferentziazko teknikaria izendatzea (Aldundikoa)
- ...

Halaber, duen aktiboa zainduz, begirada zabaldu beharra ere ikusten da eta aliantza edo sare berriak eraikitzekeko urratsak ematea, antolaketa malguago batekin eta interes eta beharren arabera. Irekitasun horretan aipatu diren alderdiak hauek dira:

- Erakunde arteko espazioaren eskaintza udal bakoitzeko arlo batentzat baino gehiagorentzat baliagarriagoa den eskaintza izatea. Ikuspegi honek udal barruan bertan sail desberdinen arteko proiektu/lantalde edo elkarlanerako espazioak aktibatu ditzakeela ikusita.
- Beste sareekin elkarlanean, lantalde berriak edo formatu berriak probatzea.
- Espazio eta programen arteko loturak antolatzekeko beharra
- ...

Dena dela, orain arteko dinamikari eutsiz, partaidetza teknikarien beharrak entzun eta horiei erantzuten dien plangintzak garatzekei garrantzia eman zaio. Bide berriak urratu bai, baina dagoena zainduz.

Elkarlan tekniko-politikoaren sustatzeko espazioak sortzea ere proposatu da, eta tartean espazio horietara herritarrak gonbidatzea ere proposatu da.

Nolanahi ere, aipatzen da Herritarren Partaidetzaren Zuzendaritzari eta Erakunde arteko Espazioari dagokion aitortza eman behar zaiola, balioan jarriz egindako lana. Legegintzaldi berria posizioa markatu eta indartzeko aukera gisa ikusten da. Baina, horretarako, Aldundiaren sistema osoan Erakunde arteko Espazioak duen egitekoa argitu beharra dago, eta sistema osoa baloratu behar dela proposatzen da: Etorkizuna Eraikiz, ArantzazuLab...elkarrekin elkarriketarako espazioak sortzea proposatzen da.

### **Herri txikietarako estrategia:**

Herri txiki eta ertainei baliabideak ematen jarraitu beharra azpimarratu da, eta bereziki herri txikien lantaldea zaindu eta elikatu beharra azpimarratu da. Hala ere, kezka dago herri txikietan planteatzen diren lanketekin asmatzen ote den. Estrategia argitu beharra azpimarratu da, eta hainbat ideia jaso dira:

- Herri txikietan proiektu pilotuak abiatzea
- Banakako aholkularitza, aholkularitza pertsonalizatuago bat...
- Proiektuak eskualde mailan planteatzea, herrian artean gai amankomunak lantzea.

### **Komunikazioa:**

Komunikazioari modu estrategikoan ez zaiola heldu ondorioztatu da eta kontuan hartuta, Herritarren Partaidetzaren Zuzendaritzaren eta Gipuzkoako Eskola Irekiaren webguneak berri direla, aurrera begirako komunikazio-estrategia zehaztu beharra dagoela azpimarratu da.


Aipatu da Espazioan parte hartzen duten udalerriek martxan dituzten proiektuak partekatzeko eta elkarren berri izateko, mapa bat egin daitekeela, udalerrri bakoitza sustatzen ari den proiektuak izendatuz, zein alor dauden inplikaturak... etabar jasoz. Aldundiak jada bukatzean ari den geolokalizazio-mapak behar horri erantzuten diola ondorioztatu da, eta aurki zintzilikatuko da Herritarren Partaidetzaren Zuzendaritzaren webean geolokalizazio-mapa. Geolokalizazio-mapa honi hurrengo fasean erantsiko zaio udaletan partaidetza nola dagoen egituratuta: zinegotziak, teknikariak, ordenantzak...)

Gipuzkoako eskola Irekiaren webean baliabideak txertatuko dira, gaika sailkatuta. Egun erabiltzen diren komunikazio-kanalak ondo baloratu dira, batik bat, buletina.

### **Irismena, udal gehiagoetara jauzia:**

Udal gehiagoetara iristeko bideak jorratu beharra nabarmendu da: bisitak, komunikazioa nola jaso eta iristen den aztertu...

Proposatu da agian beste testuinguru bat sortu behar dela Espaziora gerturatzeko; adibidez: dirulaguntza jasotzeko foroan edo Espazioan parte hartzea beharrezkoa izatea eta jasotzen den diru-kopuruaren arabera parte-hartzea modulatzeko. Hala ere, zalantzak ere eragin ditu proposamenak, ikusirik herri txikiek parte hartzeko dituzten baldintzak ez direla optimoenak.



**Partaidetzaren bermea, kalitate-irizpideak:**


Prozesuetan gai potoloak eta konplexuak lantzen dira eta behar duten denbora eman behar zaie prozesuei. Batzuetan ez diegu behar duten denbora ematen eta aipatu da, gutxieneko baldintzak ematen ez direnean mahai gainean jarri behar dela prozesua kalitatez eramateko baldintzak ez daudela. Horretarako, gutxieneko baldintzak zein diren zehaztea garrantzitsua dela azpimarratu da, finkatutako partaidetzaren markoaren baitan kalitate-irizpideak zein diren zehaztea, alegia, eta horiek egiaztatzeko berme-batzordeak egotea. Ebaluazioarekin lotuta, prozesuen ebaluazio partekatuak egitea ere interesgarritzat jo da. Irizpide horiek lantzeko orduan, arau betetzetik haragoko ikuspegia izatea proposatu da.

**Aniztasuna kudeatzeko estrategiak:**

Ondo diseinatutako prozesuak, partaidetzarako modu eta espazio atseginagoak sortzera bideratuak, eta bertaratzen direnen aniztasuna kudeatzeko estrategiak bilatu behar dira.

**Elkarlana, talde-akonpainamendua:**


Gai bera lantzen duten udalerrien artean elkarlanerako zubiak eraiki eta talde-akonpainamenduak egin elkarrekin ikasi eta partekatzeko.



Partaidetza komunitarioari dagokionez, Ekintza komunitarioaren markoa lurreratu eta toki mailan garatzeko estrategiak eta urratsak zehaztea dela hurrengo pausoa baloratu da. Horretarako, markoak jasotzen dituen 5 estrategietan sakontzea beharrezkoa ikusi da:

1. Politika sektorialetan ikuspegi komunitarioa txertatzea
2. Elkarten proiektuak eta herritar antolatuen gaitasunak indartzea
3. Antolatu gabeko herritarrekin eta herritarrentzat lan egitea
4. Gizarte edo komunitate azpiegitura eraikitzea
5. Erakunde barruko eta erakunde arteko aliantzen ko-sorkuntza eta eratzea

Azpinarra jarri da ekipamendu komunitarioen lanketan, lurraldean potentzialidade handiko ekipamenduak daudela nabarmenduz eta horiek ikuspegi komunitariotik lantzeak ekarriko lukeen onura azpimarratu da. Aipatu da ere, harreman-sareak eta harremanak elikatzean arreta jartzeaz, modu espontaneoan sortzen denari adi egonez. Azkenik, ekintza komunitarioaren lanketan egindako lanari ikusgarritasuna eta aitortza ematea ere garrantzitsua dela azpimarratu da.



### **Formazioaren beharra eta balioa**

Formazioa oinarritzko elementu giltzarrietako bat dela ondorioztatzen da, Aldundiak udalei begira eskaini dezakeen zerbitzuen artean. Gipuzkoako udal denentzako bateragarria eta erabilgarria izan daitekeena eta udal batek eskura ez dituen hizlari eta pertsona erreferenteak ekartzeko gaitasuna duelako Aldundiak. Antolatzen diren formazio eta hitzaldietatik jasotzen dutena ondo baloratzen dute udalek.

Elkarrengandik ikasteko eta ezagutza partekatzeko formazio-guneak sortzeari ere garrantzia eman zaio, udaletan egiten ari diren esperientziak partekatzeko, martxan diren egitasmo berritzaileak ezagutzeko, udaletan funtzionatzen ari diren egitasmoak partekatzeko...Ildo honetatik, esperientzien azoka edo trukea bezalako ekimenak proposatu dira, herri artekoak zein herri mailakoak.

Halaber, garrantzitsua ikusten da partaidetzaren alorreko beharren diagnosia egitea eta horiei erantzuten dien formazio-programa bat egitea. Horren ardura Gipuzkoako Eskola Irekiak izatea aurreikusten da.

### **Hartzaileak: politikariak, teknikariak, herritarrak**

Politikariei dagokionez, legegintzaldi hasieran ordezkari politikoei partaidetzaren inguruko prestakuntza eskaintzea proposatzen da. Aipatu da, maila politikoan Foru Arauaren inguruko



ezagutza eta prestakuntza falta dagoela. Formakuntza, gobernu taldeez gain, korporazio osoari eskaintzea proposatzen da.

Politikarien arteko gune edo espazioak izateari garrantzia eman zaio, baina behin baino gehiagotan errepikatu da espazio politiko-teknikoak izatea, politikariak eta teknikariak elkarlanean jarriko dituen. Teknikariei dagokionez, aipatu da formakuntza ez dela soilik partaidetza alorreko teknikariei zuzenduta izan behar; begirada zabalago batetik, udal bateko arlo desberdinetako teknikariei zuzendutakoa izatea proposatu da, arlo eta zerbitzu desberdinetan partaidetza ikuspegia txertatzeko. Justu partaidetza-gaietan hain jantzita ez daudenengana iritsi beharra azpimarratu da.

Herritarrei dagokionez, beraiei zuzendutako trebakuntza sustatzea ere interesgarritzat jo da, eta ezagutza hori sustatzearen arduraduna Gipuzkoako Eskola Irekia dela baloratu da.

### 3 Norabidea

Norabidea zehazteko urratsean ikuspegi teknikoa eta politikoa bateratu ditugu eta aurrera begira landu beharreko **eremu estrategikoak eta helburu estrategikoak** zehaztu dira. Era berean, finkatutako helburuak gauzatzeko **baldintza eta konpromisoak** ere jardun dugu.


Ikuspegi eta ardura desberdinetatik, honako galderaren lanketan jardun dugu lanean:

**Plangintza hau aurrera eraman ahal izateko, zeintzuk dira:**


**Gutxieneko baldintzak?**

**Bakoitzak bere arduratik hartu beharko lituzkeen konpromisoak?**

#### 3.1. Eremu estrategikoak



### 3.2. Ildo estrategikoen mapa



### 3.3. Helburu estrategikoak

#### PARTAIETZA EGITURATZEA

##### Gipuzkoa eta toki mailan partaidetzaren alorrean adostasun eta konpromiso politikoak bilatzeko oinarriak lantzea

- Gipuzkoako instituzio eta alderdi desberdinen artean partaidetzaren inguruko adostasunak lantzea (ulermen partekatua).
- Erakunde arteko Espazioaren Exekutiboaren papera birpentsatzea.
- Erakunde arteko Espazioa Aldundiko partaidetzaren ekosisteman kokatzea eta elkarlanerako loturak egitea.
- Udaletan alderdi desberdinen arteko partaidetza-itunak sustatzeko gogoetak sustatzea.

##### Lidergo politiko sendoa eraikitzea

- Ordezkaritza politikoak ahaldunduz: beraien beharrak jaso eta beharrei modu bateratuan erantzuteko Espazioak aktibatzea.

##### Administrazioaren lan-dinamikak aztertu eta baldintza egokiak sortzea

- Udaletan sailen arteko elkarlana (zeharkakotasuna) sustatzea eta elkarlan tekniko-politiko indartzeko baliabideak jartzea.
- Partaidetza teknikariaren profila berrikustea, kontuan hartuta herri txikietan funtzio horiek nola landu daitezkeen.

##### Udalei baliabideak eta lurralde ikuspegia eskaintzea

- Baliabideak eskaintzea: dirulaguntzak, aholkularitza zerbitzua indartzea...
- Herri txikien beharrei erantzutea estrategia desberdinak aztertuz.
- Foru Aldundiari dagozkion eskumeneko gaiak herriz herri eta herritarrekin lantzeko espazioak bideratzea (kirola, garraioa, errepideak...).

## PARTAIDETZAREN KALITATEA

### Gertuko harremanak eta elkarlanerako dinamika sustatzea

- Teknikarien arteko sareak eta taldeko bidelaguntzak sustatzea.
- Udal gehiagoetara iristeko bideak jorratzea.
- Partaidetza teknikari berriei harrera egitea.

### Kalitatezko partaidetza bermatzea

- Politika publikoak modu parte hartzailean garatzen direla bermatzeko ebaluazio-sistemak diseinatu eta garatzea, kalitatezko partaidetza bermatzeko partaidetza markoaren kalitate-irizpideak zein diren zehaztuz.
- Aniztasuna kudeatzeko estrategiak lantzea.

### Aliantza edo sare berriak eraiki eta horiekin jardutea, kalitate demokratikoa hobetzeko

- Erakunde arteko Espazioaren eskaintza udal bakoitzeko arlo gehiagorentzat izatea.
- Beste sareekin elkarlanean, programa ezberdinen arteko loturak egin eta lantalde berriak edo formatu berriak probatzea.

## PARTAIDETZA KOMUNITARIOA

### Ekintza komunitarioaren markoak lurreratzea eta toki mailan garatzeko estrategiak martxan jartzea

- Ekintza Komunitarioaren markoa udaletara eramateko udaletan gogoetak sustatzea eta markoa tokian tokira egokitzea.
- Ekintza komunitarioa sustatzeko estrategietan sakontzea, praktikak sustatu, partekatu eta sistematizatu.
- Prozesu komunitarioak sustatzeko printzipio metodologikoak presente izatea eta sustatzea.

## TREBAKUNTZA

### Partaidetzaren kultura politikoa sustatzeko Trebakuntzan sakontzen jarraitu, Gipuzkoako Eskola Irekiaren bidez

- Legegintzaldi hasieran ordezkari politikoei trebakuntza eskaini (gobernu taldeez gain, korporazio osoari).
- Teknikariei trebakuntza eskaintzea (partaidetza teknikariez gain, gainerako arloetakoei).
- Espazio tekniko-politikoak ere sortzea.
- Elkarrengandik ikasteko eta ezagutza partekatzeko formazio-guneak sortzea.
- Herritarrei formazioa eskaintzea.


**KOMUNIKAZIOA**

**Erakunde arteko Espazioaren eta Gipuzkoako Eskola Irekiaren komunikazio-estrategia birpentsatzea eta jakintza partekatzea**

- Barne eta kanpo komunikazioa indartzea.
- Praktikak partekatzeko espazioak eskaintzea.

**3.3. Baldintzak eta konpromisoak**

Plangintza aurrera eramateko **gutxieneko baldintzak:**



Plangintza aurrera eramateko bakoitzak dagokion arduratik **hartu beharreko konpromisoak:**

